

## SICUEKO IKASLEARENTZAKO JARRAIBIDEAK

Behin eman zaizun mugikortasuna onartu eta gero, uneoro inprima ditzakezu behar dituzun dokumentuak GAUR (UNIBERTSITATE TRUKEA) profileko **ZIURTAGIRIAK** botoia erabilita. **XEHETASUNA** botoiaren bitartez, aipaturiko mugikortasunaren jarraipena egin dezakezu. Horretarako, onartutako mugikortasuna hautatu behar duzu. Egonaldirako behar dituzun dokumentuak ere behera kargatu ahal izango dituzu.

Behin zure helmuga jakiten duzunean, zure ikastegiko koordinatzailearekin harremanetan jarriko zara ikasketa gaiekin zerikusia duten xehetasunak eztabaidatzeko eta GAUR aplikazioaren bitartez **AKADEMI ONESPENERAKO AURRETIKO KONPROMISOA/KONPROMISO AKADEMIKOA** betetzeko (prozesua epeka bizkortzea behar bada, aurretikoa egin daiteke paper formatuan). Horretarako, kontuan hartuko dira ikaslearen betebeharretan adierazitako jarraibideak, elkartruke programetan parte hartzeko arauak eta mugikortasun-programaren deialdiko oinarriak.

Mugikortasun programako zure parte hartzea behar bezala izapidetzea ondoren aipatuko dizkizugun dokumentuak adierazitako epeetan bidaltzearen baitan egongo da. Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa kontratua eta diru laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake, bai eta hurrengo ikasturtean trukea eskatzeko ezin izatea ere:

**1.- EGIAZTAGIRIA:** (gaztelania eta euskara). (Zure GAUR profileko **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez inprima dezakezu).

Egonaldi emakida justifikatzeko ziurtagiria.(ez da ematen erabilera pertsonalerako da)

**GARRANTZITSUA:** UPV/EHUko IKASLEEN ARDURA DA EGONALDIAREN HASIERAKO ETA AMAIERAKO ZIURTAGIRIAK DESTINOAN ESKATZEA ETA NAZIOARTEKO HARREMANETAKO BULEGORA ([seneca@ehu.eus](mailto:seneca@ehu.eus)) **BIDALTZEA. ZURE UNIBERTSITATEAK BALDINTZA HORI NAHITAEZ BETE BEHAR DU.**

### ZIURTAGIRIAK:

**2.- HELDUERA ZIURTAGIRIA:** (GAUR profilean inprimatu ahal duzu **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez)

Helburuko unibertsitateko egonaldia hasi ondoren, ahalik eta azkarren bidali behar duzu Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora ([seneca@ehu.eus](mailto:seneca@ehu.eus)) **F INPRIMAKIA: HELDUERA ZIURTAGIRIA**, zehaztuta zein egunetan iritsi zaren helburuko unibertsitate eta noiz bukatuko duzun, gutxi gorabehera, egonaldia. Hilabeteko epea izango duzu horretarako.

Ziurtagiriaren data ezingo da izan ikasleak helburuko atzerriko egonaldia hasiko duen data baino lehenagokoa.

**3.- EGONALDI AMAIERAREN ZIURTAGIRIA:** (Zure GAUR profileko **ZIURTAGIRIAK** botoiaren bitartez inprima dezakezu).

Helburuko unibertsitateko egonaldia bukatu ondoren, ahalik eta azkarren bidali behar duzu Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora([seneca@ehu.eus](mailto:seneca@ehu.eus)) **EGONALDI AMAIERAREN ZIURTAGIRIA**, zehaztuta egonaldiaren hasierako eta bukaerako datak. Hilabeteko epea izango duzu horretarako.

Ziurtagiriaren data ezingo da izan ikasleak helburuko atzerriko egonaldia bukatuko duen data baino lehenagokoa.

**DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA (PDF FORMATUA):** (horietako batzuk egonaldian zehar izango dituzu eskuragai, eta gerta daiteke besteren bat ere gehitzea).

**1.- JARRAIBIDEAK:**

Irakurri arretaz.

**2.- IKASLEAREN BETEBEHARRAK:**

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

**3- KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA EGITEA**

Garrantzitsua. Irakurri arretaz.

**4.- SICUE EGONALDIA LUZATZEKO EDO LABURTZEKO INPRIMAKIA**

(gaztelaniaz eta euskaraz) (GAUR aplikazioaren bidez inprima dezakezu, Dokumentazioan)

OHARRA: Egonaldiaren iraupena aldatu nahi duten ikasleek baino ez dute aurkeztu behar.

Hilabeteko epean, SICUE plaza onartzen denetik kontatuta, lehenbailehen bidali behar duzu UPV/EHUren Leioako Nazioarteko Harremanen Bulegora **SICUE egonaldia luzatzeko edo laburtzeko inprimakia**, non helmugako unibertsitatean egonaldiaren iraupenaren aldaketa justifikatzen duten arrazoiak berretsiko diren, UPV/EHUko SICUE koordinatzaileak baimenduta, haren sinadura eta zigiluarekin eta ikaslearen sinadurarekin, horren bitartez konpromisoa hartzen du akordio akademikoko egonaldia laburtzeko edo luzatzeko eranskina egiteko eta eskatutako egonaldirako helmugako irakasgaiak kontsultatzeke.

Nahitaez egin behar da egonaldiaren iraupena aldatzeko GAUR aplikazioan

**\*\*Epea maiatzaren 13ean amaituko da (hori ere barne).**

**OHARRA:** Ez da egonaldia aldatzeko eskaririk onartuko epez kanpo. Salbuespen gisa, behin mugikortasuna hasita helmugako unibertsitatean, egonaldiaren murrizketa onartu ahalko da baldin eta **idazki** baten bidez justifikatzen bada arrazoa argudiatuz eta **behar den dokumentazioa** aurkeztuz: osasun ziurtagiria, praktiken edo lanen kontratua edo bestelakorik...edo **Akordio Ekonomikoko egonaldia laburtzeko eranskina (C inprimakia)** erantsiz, ikasleak eta bi koordinatzaileek behar bezala beterik. Hala eginez gero, Errektoreordetzak jaso egingo du epez kanpoko eskaera, baldin eta behar bezala justifikaturik badago, eta behin aztertuta, onartu edo atzera botako du.

**GARRANTZITSUA:**

**MAIZ BEGIRATU ZURE MUGIKORTASUN ESKAERAREN EGOERA ZURE GAUR PROFILAREN BITARTEZ: UNIBERTSITATEKO ELKARTRUKA ETA UNIBERTSITATEKO ERREKTORERDEZAREN WEB ORRIAN.**

**Nazioarteko Harremanen Bulegoa**  
Sarriena auzoa, z.g. Biblioteka, 2. solairua  
48940 Leioa (Bizkaia)  
Tel.: 94 601 2089  
seneca@ehu.eus